

Durangoko etxebizitza larrialdiari aurre egiteko plana



2026-2029

ehbildu



0.

Sarrera

Durangoko udalaren etxebizitza politika eredu neoliberalaren inertziak kudeatzera mugatu da azken hamarkadetan eta, modu aktiboan edo pasiboan, kudeaketaren ardura merkatuaren eskuetan utzi da. Bestela esateko, eraikuntza enpresen mesedetara jarri dira etxebizitzaren politika publikoak, herritarren etxebizitza eskubidea bermatzera bideratu beharrean.

Eskala anitzeko arazoa da etxebizitzarena, izan ere, egungo gure estatus juridikoan, partekatua da etxebizitza-politikaren eskumena. Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen Legearen 25.2a) artikulutik dator udalek etxebizitzaren alorrean duten eskumena. Udalek diagnostikoak eta etxebizitza-planak egiteko gaitasuna dute. Legeen zenbait alderdi aplikatzeko eta garatzeko gaitasuna. Etxebizitzak sustatzeko, etxebizitza publikoak kudeatzeko edo beste erakunde batzuekin hitzarmenak egiteko gaitasuna.

Beraz, etxebizitzarako eskubide subjektiboa bermatzeko hartu daitezkeen egiturazko neurriak ez daude denak udalen esku, baina, hala ere, udalek, dituzten ahalmenekin, paper garrantzitsua dute gai honetan.

Orain arteko politikek eragin duten etxebizitza larrialdiaren dimentsioaren diagnostikoa egin eta egoerari buelta emateko hartu beharreko berehalako neurriak zerrendatzen dira proposamen politiko honetan.

01.

Egoeraren Diagnostikoa

Gaur Egungo egoera

Durangon 13.199 etxebizitza daude, eta gehienak etxebizitza kolektiboak dira (%96,5).

Durangon 11.543 etxe habitaturik daude, horietatik 10.026 etxebizitzaren jabe dira eta 1.517 alokairuan bizi dira.

Etxe hutsak

Beste 1.405 etxe hutsik daude (%10.6), 253 etxek urte bete daramate hutsik eta 1.152 etxek bi urte baino gehiago.

Etxe hutsen kontzentrazioa handiena Alde Zaharrean eta Ezkurdin dago, %20tik gorako etxe hutsen tasarekin. Korrelazioa handia dago etxebizitza zaharren eta etxebizitza hutsen artean.

Zer da etxe hutsa?

Etxebizitza hutsa da bertan inor erroldatu gabe 2 urte daramatzana edo uraren, gasaren edo elektrizitatearen gutxieneko kontsumora iristen ez dena; hau da, herriko

batez besteko kontsumoaren herena, edo datu horien faltan EAEkoaren herena.

Etxeen tipologia

Gaur egun 438 babes sozialeko etxebizitza daude Durangon, jabetza erregimenean denak. San Fauston beste 102 eraikitzen ari dira, hauek ere salmentan.


Bestalde, 2020ko azken datuaren arabera, Eusko Jaurlaritzaren BIZIGUNE Programari esker alokairu babestuan zeuden etxe kopurua 134 da .

Durangoko udalak 16 etxebizitza ditu jabetzan, larrialdi egoerarako dituenak aparte utzita.

Gainontzeko etxeak, oro har, merkatu librearen menpe daude.

Etxebizitzaren eraikuntza Durangon

1951-2025



Eraiki diren etxeak

Durango, inguruko udalerrietan bezala, bi izan dira etxebizitza eraikuntzaren une gorenak

Lehenengo puntu gorena frankismoaren azken urteetan izan zen, 1960-1975 urteen artean. Sasoi horretan, urtean batzuetan 200 etxebizitzatik gorako eraikuntza erritmoa izan zen, eta Durango gaur egun dauden etxeen %30a inguru sasoi horretan eraiki zen. Azken datu horri adi erreparatu behar diogu, izan ere, gazte asko dabilta gaur egun etxebizitza horietara bizitzera sartzen (prezio baxuenak dituztelako edo herentzian jaso ahal izan dutelako). Baina duela 60 urte eraikitako etxeak izaki, eraikinak zahartzen ari dira, eta jada ez diete gaur egungo gazteen bizi ereduei erantzuten.

Sasoi horren ondoren, Durango asko eraiki den arren, barealdi bat izan zen, 90. hamarkadara arte. Aurreko mendearen amaiera eta oraingoaren hasierako urteetan higiezinaren boom-a gertatu zen, gerora krisi ekonomikoa eragingo zuena. 1990etik 2005erako epealdian, urtero ia 300 etxebizitza eraikitzen ziren Durango. 2008an, krisi ekonomikoak eztanda egin zuenetik, kopuru hori nabarmen jaisten hasi zen. Ordutik gutxiago eraiki da, parte batean higiezinaren boomaren ondorenak baldintzatuta, eta, beste parte batean, Durangoren lurzoru libre urriagatik.

Azken 10 urteetan 600 etxebizitza inguru eraiki dira, urtean 60 etxebizitza batzuetan, eraikuntza erritmoak gorantz egin duelarik.

	VPS	Eginda	Tasatuak	Eginda	Libre	Eginda	Guztira	Eginda
PERI FFCC	84	0	84	0	252	0	420	0
San Fausto	0	102	88	0	228	60	316	150
San Roke	0	143	0	0	224	110	224	253
Artabilla	75	0	99	0	151	0	325	0
Eguzkitzagoiena	202	0	65	0	74	0	341	0
Birjinoste	35	0	30	0	77	0	142	0
Trenbide	0	0	13	0	17	0	30	0
Intxaurrondo	0	0	17	0	23	0	40	0
Larrasoloeta	38	0	38	0	99	0	175	0
Ona	0	0	0	0	20	0	20	0
Iparzabalarra	30	0	0	0	61	0	91	0
Arripausueta	50	0	0	0	0	95	50	95
Kabilduoste	18	0	18	0	84	0	120	0
Faustegoiena	46	0	0	0	0	0	46	0
Mikeldi	48	0	0	0	0	0	48	0
Guztira	349	+245	288	0	1085	+265	1722	+498

Eraikiko diren etxeak

Indarrean dauden arau subsidiarioak 2/2006 Legera egokituz, eta Eusko Jaurlaritzarekin egindako aurreakordioan jasotzen direnak kontuan hartuz, hurrengo 10-15 urteetan 1.722 etxebizitza berri eraikitzea aurreikusita dago Durangon. Horietatik 349 VPS, 288 tasatuak eta 1.085 merkatu librean.

Dena dela, arau subsidiario hauek indarrean egon arren, praktikan HAPO berriak eguneratu beharko lituzke berandu baino lehen. Bestalde, Durangoko udalak eta Eusko Jaurlaritzak PERIaren inguruan

egindako aurreakordioa ez da definitiboa eta bertan jasotzen diren promozio batzuk gatazkatsuak dira, lurren jabegoaren gatazkengatik edo promozioak duen aurkakotasun sozialagatik.

Gauzak horrela, esan genezake datozen 10-15 urteetan gehienez alokairu sozialeko 330 etxebizitza inguru eraikiko direla. Litekeena da etxebizitza tasatuak alokairura ez bideratzea, hori ahalbidetzen duen ordenantza onartu baitu 2024an Durangoko Udalak.

Tentsio eremua

Espainiako Kongresuan iaz onartutako Etxebizitza Eskubideari buruzko maiatzaren 24ko 12/2023 Legeak bidea zabaldu du hainbat udalerri Bizitegi-merkatuko Tentsio Eremu izendatzeko. Lege horren 18. artikulua arabera, Legean zehaztutako baldintza edo kriterioak betetzen dituzten udalerriek Tentsio Handiko Bizitegi Eremu izendatzea formalki eskatu ahalko dute, eta, izendapena lortuz gero, etxebizitza merkatuan eragiteko zenbait neurri hartu ahal izatea ekarriko die udal horiei.

Udalerri batek, eta honen distritoetako batek, tentsio eremu izendatuak izateko bi baldintza hauetako bat bete behar dute:

1. Hipotekaren edo alokairuaren kostuak aurrekontu pertsonalean edo bizikidetzaren unitatearen aurrekontuan duen batez besteko kargak, gehi oinarritzko gastu eta hornigaiak, familien batez besteko diru sarreraren edo batez besteko errentaren ehuneko hogeita hamar gainditzea.
2. Etxebizitza merkatuko tentsio eremu izendatu aurreko bost urteetan etxebizitzaren erosketaren edo alokairu prezioak izandako hazkunde metatuaren ehuneko gutxienez ehuneko hiru puntu handiagoa izatea dagokion autonomia erkidegoko kontsumo prezioen


indizearen hazkunde metatuaren ehunekoa baino.

Durango udalaren kasuan, udalerri osoa Tentsio Handiko Bizitegi Eremu izendatua izan dadin aipatu 12/2023 legeak zehazten dituen kriterioak ez dira betetzen, Etxebizitzaren Euskal Behatokiak 2023ko abenduan argitaratutako txostenaren arabera.

Distritoa	Familia errenta 2021	Alokairua 2021	Esfortzua
1	40.348	600.5	25.02%
2	37.988	608.7	26.83%
3	41.796	588.5	23.81%
4	41.586	646.9	25.68%
5	46.481	679.9	23.77%
Guztira	42.771	634.6	24.60%

Distritoa	Alokairua 2017	Alokairua 2022	Diferentzia
1	548.5	608.4	10,95
2	566.4	618.5	9,18
3	554.7	623.9	12,45
4	619.2	691	11,63
5	610.7	674.3	10,49
Total	588.1 €	650.9€	10.70%

Etxebideko eskatzaileak



Norekin sortua Datawrapper

Etxebizitza eskaria

Etxebiden izena emanda daude 2.099 eskatzaile Durangon, etxebizitza bat eskuratzeko. Horietatik 1.455 alokairurako eskatzaileak dira, eta 644 erosketarako. Azken bi urteetan %69 hazi da eskatzaileen kopurua. Eskatzaileetatik 453 gazteak dira.



02.

Datuek esaten dutena

Datu hauetatik ondorio batzuk atera ditzakegu:

1. Durangok tentsio eremu izendatua izateko irizpideak betetzen ez dituen arren, udalerriko eremu guztietan %10 baino gehiago hazi da alokairuaren prezioa azken 5 urteetan, eta eremu batzuetan diru sarreren %25 baino gehiago bideratzen da etxebizitza ordaintzera.
2. Datozen hamar urteetan aurreikusita dauden etxebizitza babestu guztiak (637) eraikiko balira ere, ez luke jada gaur egun Etxebiden izena emanda dagoen etxebizitza eskatzaileen kopurua (2.099) berdinduko.
3. Datozen urteetan eraikiko diren etxebizitzetatik gehienez 331 izango dira alokairu babestura bideratuak. Kopuru hori oso urrun geratzen da jada gaur egun dagoen alokairu eskatzaileen kopurutik (1.455).
4. Alokairu eskatzaileen kopurua haziz doa. Hiruhileko batetik bestera ia 50 pertsona gehiago daude alokairu baten zain.
5. Argi ikusi da merkatu librearen logikan arazoa handitu baino ez dela egingo. Beraz, etxebizitzaren arazoaren konponbidea ez da merkatu librean etxebizitza gehiago eraikitzetik etorriko.
6. Existitzen diren etxebizitzetatik 1.405 (%10,6) hutsik daude, eta gehienak 2 urte baino gehiagoz daude erabilerarik gabe. Etxebizitza hauek alokairura bideratuko balira posible litzateke alokairu eskaerari erantzutea.
7. Hainbeste etxebizitza hutsik egonda, guztiz irrazionala da etxebizitza berriak eraikitzeko lurzoru naturala okupatzen jarraitzea, Eguzkitza eta Artabillan planteatzen den moduan.
8. Durangon lehenengo solairuan edo gorago kokatzen diren 115 bulego edo negozio daude erregistratuta.



03.

Nola heldu gara honaino?

Udalaren jabetzako etxeak

Durangoko Udalak, larrialdi egoeretakoez aparte, 16 etxebizitza ditu jabetzan, promozio ezberdinetarako bere jabetzakoak ziren lurak saltzearen ondorioz eskuratuak. Faustegoienan kokatzen diren 16 etxebizitza hauetako batzuk alokairuan egon ziren 2022 arte. Gainontzekoak 2023an eskrituratu ziren. Gaur egun hutsik daude denak.

Alokairurako diru-laguntzak

Durangoko Udalaren etxebizitza politiken ekimen urrietako bat emantzipaziorako diru-laguntzena da. Duela urte batzuetatik Udal Aurrekontuetatik diru partida bat bideratzen da gazteei alokairuaren ordainketan laguntzeko.

Garai batean neurri honek zentzurik izan bazezakeen arren, gaur egun ez da neurri eraginkorra, Jaurilaritzaren GAZTELAGUN programak erantzuten baitio beharrian

honi, baldintza hobeak eskainiz. Horren adibide da azken urteetan Durangoko Udaletik programa honetara bideratutako diru-partidaren zati handi bat banandu gabe geratu izana.

Urtea	Partida	Erabilia
2022	70.000,00 €	56.481,82 €
2023	70.000,00 €	29.437,50 €
2024	50.000,00 €	29.578,20 €

Etxebizitza tasatuen udal ordenantza

Babes sozialeko etxebizitzetaz gain, bada beste etxebizitza babestu mota bat: Etxebizitza tasatua. Kalifikazio mota honek Babes Sozialeko (lehen VPO) etxebizitzak baino baldintza malguagoak izan ohi ditu, eta azken honen eta etxebizitza librearen

arteko aukera gisa aurkeztu izan da.

Etxebizitza tasatuak bi motatakoak izan daitezke, autonomikoak edo udalekoak. Udal Etxebizitza Tasatuak udalak erregulatzen ditu, beraz, udalak ezartzen ditu, besteak beste, sarbide baldintzak (gehienezko soldata, errolda urteak...), etxebizitzaren erregimena (salmenta edo alokairua), edo prezioak (salmenta edo alokairu prezio maximoak).

Udal Etxebizitza Tasatuaren figura, beraz, erraminta garrantzitsua da udal batek bere etxebizitza politika diseinatzerako orduan. Durangon 2024an onartu zen lehenengo Etxebizitza tasatuen udal ordenantza, urte horretan hasi baitziren eraikitzen mota honetako lehenengo promozioa.

Hala ere udal gobernua aukera bat galdu zuen bestelako etxebizitza politika bat egiteko. Alde batetik, ordenantza honek etxebizitza tasatuetara bideratuta dauden udal orubeak saltzea baimentzen du, hirugarren batek erosi eta garatu ditzan. Bestalde, ez du etxebizitzak alokairurako izan behar direla bermatzen, eta hauen salmenta ahalbidetzen du. Azkenik, etxebizitza hauen prezioa babes sozialekoena baino 1,5 handiagoa izan daitekeela esaten du, 380.000€ ko maximoarekin, merkatuko prezioaren parean.

Durango Eraikitzen S.A.

DURANGO ERAIKITZEN S.A. Durangoko Udalaren sozietate publiko bat da. 2004an sortu zen bi helburu nagusirekin:

1. Durangoren eraikuntza ondarearen biziberritzea. Eraikinak zaharberritzeko diru-laguntzen (irisgarritasuna, efizientzia energetikoa, ITE...) informazioa herritarren eskura jartzea, eta Aramotz Berritu programaren kudeaketa.
2. Etxebizitza hutsak mobilizatzea, Eusko Jaurlaritzaren BIZIGUNE programa baliatuz.

Gainera, nahiz eta azken helburuetan aipamenik ez egin, sorreran bazuen beste misio bat sozietate publiko honek, eta horrela ageri da estatutuetan:

“Honako hauek dira sozietatearen helburuak: [...] Babes ofizialeko eta prezio tasatuko etxebizitzak sustatu eta eraikitzea, eta baita lurzoru industrialak sustatzea eta kudeatzea, Durangoko udalerriaren eta bertako biztanleen onurarako.”

Hala ere, azken urteetan Aramotz Berritu programa kudeatzera soilik mugatu da Durango Eraikitzen sozietate publikoa, alde batera utziz etxebizitza zaharren zaharberritzeak, etxe hutsen mobilizazioa eta promozio publikoen sustapena.

04.

Neurrien dekalogoa

Neurriak proposatu aurretik, esan beharra dago etxebizitzaren egoeran faktore ugari hartzen dutela parte, eta beraz, honen soluzioa ere hainbat neurriren elkar eraginetik etorriko dela. Ez dago neurri magikorik, eta neurri guztiak dira beharrezko.

Hurrengo zerrendatzen direnak neurri jakin batzuk dira, udal-politiketarik epe laburrean inplementatu daitezkeenak. Dena dela, neurriok eraginkorrak izan daitezen hainbat urtez martxan egon beharko dira, horretarako adostasun zabalak lortu beharko direlarik.

1. Neurria

Etxebizitza bulegoa sortu

Aurrez aipatu bezala, Durango Eraikitzen sozietate publikoak ez die sortu zenerako helburuei erantzuten. Une hau aprobetxatu behar da Durangoko Etxebizitza Bulegoa sortzeko, Durango Eraikitzenek sorreran zituen helburuei zein beharrizan berriei erantzungo dielarik. Durangoko Etxebizitza politiken gidaritza izango duen sozietate publikoa izango da.

Besteak beste, etxebizitza hutsak mobilizatuko ditu, etxebizitzak birgaitzeaz arduratuko da eta, kasua ematen bada, alokairuko etxebizitza publikoa sustatuko du.

Etxebizitza bulegoa Durangoko lokal batean kokatuko da eta herritarrentzako arreta zerbitzua izango du. Durangoko udalaren zein gainontzeko administrazioen programen inguruko informazioa kontsultatzeko balioko du.

Horretarako beharrezko pertsonala kontratatuko da.

2. Neurria

Udal etxebizitza parke publikoa handitu

Udalaren jabetzakoak diren 16 etxebizitzak hutsik eta erabilerarik gabe daude azken urteetan. Lehenbailehen etxebizitza horiek herritarren zerbitzura jarri behar dira, alokairu babestuan.

Baina 16 etxebizitza ez dira nahikoa herritarren beharrezaneiei erantzun eta etxebizitzaren problematikan eragiteko. Horregatik, hurrengo lau urteetan kopuru hori bikoiztu behar da.

Udalak lehentasuna dauka etxebizitza babestuen atzera-eskuratzean. Horretarako etxebizitza babestuen inbentarioa egin behar da. Urteroko aurrekontuetatik partida bat bideratu behar da horretara.

Bestalde, udalak etxebizitzetan kobratu ditzake promozio berrietan dagozkion eskubideak.



3. Neurria

Etxebizitza dotazionalak San Agustinen eta Pinondon

San Agustineko ospitale zaharraren eraikinean nagusientzako zuzkidura-etxebizitzak (dotazionalak) sustatu behar dira. Zaintzadun etxebizitzak izango dira gehiengoa, nagusientzat bideratuta. Anbulategitik, garraiotik eta adinekoen egoitzatik hurbil egotera kokaleku aproposa da horretarako.

Bestalde, Pinondo Etxean ere zuzkidura-etxebizitzak eraiki behar dira, kasu honetan gazteentzako izango direnak, batez ere.

Proposamen hau gauzatzeko aurreko legegintzaldian Eusko Jaurlaritzarekin egindako PERIren aurreakordioa berreskuratu behar da, bertan aurreikusten baitziren bi proiektu horiek.

4. Neurria

San Fauston 88 Udal Etxebizitza Tasatu alokairuan

San Fauston, udalaren jabetzakoa den lurzoruan, 88 udal etxebizitza tasatu eraiki daitezke.

Etxebizitza horiek alokairu publikoan eta Jaurlaritzak etxebizitza babestuentzat proposatzen duen erreferentzia prezioarekin eskaini behar dira, lurzoruaren udal jabetza mantenduz.

Horretarako aukera ezberdinak aztertu behar dira, gainontzeko administrazioekin zein etxebizitza-kooperatibekin elkarlana bilatuz eta udalaren gaitasun guztiak martxan jarriz.

5. Neurria

Etxebizitza tasatuen ordenantza eguneratu

Etxebizitza Tasatuen Ordenantzak ez dio udalerrian bizi dugun larrialdiari erantzuten.

2024an onartutako ordenantza honek, etxebizitza saltzea lehenesten du, alokairuaren ordeaz. Gainera, ezartzen diren prezioak merkatuko prezioetan mantentzen dira.

Ordenantza berriak udal etxebizitza tasatuak alokairu erregimenean eskainiko direla bermatu behar du eta prezio maximoa ezingo da Eusko Jaurlaritzak etxebizitza sozialentzako ezartzen duen prezio tasatua baino 1,3 aldiz handiago izan.

6. Neurria

Udalaren jabetzako lursailak babestu

Udalaren jabetzakoak diren lursailak babestearen aldeko akordioa egin behar da, alderdi guztien artean.

Lursail horiek saldu beharrean, lagatzearen formula lehenetsi behar da, promozio berriak beste administrazio batzuek garatu arren jabetza mantentzeko. Udal lurak ez dira finantzazio iturri soila, etxebizitza politikak egiteko funtsezko erraminta baizik.

Kontrara, beharrezkoa balitz, hiriguneko lurzoru berria erostea aztertu beharko litzateke.

Dena den, urbanizatu gabeko ingurune naturalak ere babestu egin behar dira.



7. Neurria

Etxe hutsak mobilizatzeko laguntzak

1.405 Etxebizitza daude erabilerarik gabe. Etxejabe txikiei erraztasunak eman behar zaie euren etxebizitza hutsak mobilizatu ditzaten, Eusko Jaurlaritzako BIZIGUNE programaren bidez. Horretarako:

GUNEBERRI PROGRAMA abian jarri:

Programa honen bitartez, Etxebizitza hutsen jabeek 5.000€ laguntza jaso ahal izango dute euren etxebizitza hutsa zaharberritu eta 5 urtez BIZIGUNE programan jartzeko. Hori posible egiteko, urtero 80.000 euro bideratuko dira Udal Aurrekontuetatik. Diru-laguntza hau Eusko Jaurlaritzak eskaintzen duenarekin osagarritu ahal izango da.

Bestalde, Udal Aurrekontuetatik 15.000 euro bideratuko dira administrazio ezberdinek dituzten programen berri eman eta hauen zabalpena egiteko.

Helburua izango litzateke 4 urteren buruan 200 etxebizitza gehiago izatea BIZIGUNE programan.

8. Neurria

Bankuen eta jabe handien etxe hutsei kanona ezarri

Lehenik eta behin, hutsik dauden etxebizitzak errolda egin behar da, egoeraren argazki zehatza izateko, udal errolda eta hornidura-enpresen datuak aztertuz.

Bankuek, inbertsio funtsek eta 5 etxebizitza baino gehiagoren jabetza duten etxejabe handiek dituzten etxebizitza hutsei 2015eko Etxebizitza Legearen 149/2021 dekretuak jasotzen duen kanona ezartzea aztertu behar da.

Kanon horren bidez, etxebizitza hutsaren metro karratu bakoitzeko 10€ko kargua ezarri dakioke jabeari.

Kanona ezarri aurretik, etxea birgaitzeko edo alokatzeko diru-laguntzak eskainiko dira, helburua etxebizitza hutsak alokairu merkatura mobilizatzea izanik.

9. Neurria

Goi solairuetako bulegoak etxebizitza bihurtu

Lehenengo solairuetan dauden 115 negozioak beheko solairuetara lekualdatzea aztertu behar da, etxebizitzetarako libre utziz.

Udal ordenantza baten bitartez, 115 negozioen higiezinak etxebizitza bihurtzeko aukera eskaini behar zaie jabeai.

Espekulazioa ekiditeko, sortzen diren etxebizitza berriak erregimen babestukoak (Udal Etxebizitza Tasatuak) izango lirateke, eta jabeek irabaziko luketen plusbalioaren zati bat bulego edo komertzio horiek beheko solairuetara lekualdatzeko diru-laguntzetarako erabiliko litzateke.

Horrela, etxebizitza babestu kopurua handituko litzateke, negozioak beheko solairuetara lekualdatzen direlarik.

10. Neurria

Etxebizitza turistikoak erregulatu

Etxebizitza turistikoak hirietako etxebizitza larrialdiaren erantzule garrantzitsua bilakatu dira.

Gaur gaurkoz, oraindik, Durangon ez da hiriburuetako fenomeno hori gertatzen. Baina etorkizun hurbilean, hiriburuaren saturazioaren ondorioz eta Durangok dituen ezaugarriengatik (toki estrategikoan kokatuta, hiriburuetatik hurbil), mota horretako etxebizitzak biderkatzeko arriskua dago.

Egoerari aurea hartuz, etxebizitza turistikoak erregulatu behar dira. HAPOaren berritzean egin beharko litzateke prozedura hori, herritarren parte hartzea eta erabakimena bultzatuz.






Pisena Sagastizabal

ehbildu